

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a

622. zenbakia

HIRIGINTZA/ Lanen aurrekontua 1.200.637 euro da; %30 Eusko Jaurlaritzako Izartu programak finantzatuko du

Arrurriaga eta Artekaleko urbanizazio lanek azarora arte iraungo dute

EDU MENDIBIL

Artekalea, Arrurriaga eta Goenkalea urbanizatzeko lanak abian dira joan den astetik. Iñaki Aspiazu arkitektoak egindako proiektuaren arabera, lanek 1,3 milioi euroko aurrekontua izango dute. Azarora arte iraungo dute lanek.

Lanak Arrurriagatik gora hasi ditu Lasarteko Ozio enpresak eta trafikoa etenda dago San Pedro kaletik Arrurriagara doan tartean. Lehen fase batean Arrurriagatik Goenkaleko irteera doan tartean egingo dituzte lanak; ondoren, Goenkaletik udaletxera doana. Udalak emandako datuen arabera, urbanizazio lanak azarora arte luzatuko dira.

Tarte horretan trafikoa eten badute ere, etxebizitzetarako eta lokal komertzialetarako pasoa ahalik eta gutxien oztopatzen saiatu dira obrako arduradunak. Edozelan ere, barkamenak eskatu nahi dizkiete lanengatik kaltetutako guztiei. Aste bukaeretan eta jai egunetan lanak modu berezian seinalizatuko dituzte, Arrurriaga, Artekalea eta Goen-

kalerako sarbidea ahalik eta gehien erraztuz.


Esan bezala, herri barrua berreskuratzea da egitasmoaren helburuetako bat. Ur hoditeria aldatu eta espaloiak berritzeaz gain, bestelako txukuntze lanak egingo dituzte. San Pedro parroikia eta udaletxe artean dagoen eremuan bezala, galtzada-harria bistan lagako dute.

Lanen aurrekontua 1.200.637 eurokoa da. Aurrekontuaren %30 Eusko Jaurlaritzako Izartu programak finantzatuko du.

AGENDA 21EKO BILERA EGUAZTENEAN

Bergarako Tokiko Agenda 21 proiektuaren berri emateko bilera izango da eguaztenean, hilaren 20an, udaletxean, 19:00etan. Herritar guztiei zabalduko bilera da, eragile sozial edo ekonomikoei tartean.

Lasarteko Ozio enpresak egingo ditu lanak; proiektua Iñaki Aspiazu arkitektoarena da



Tarte honetako lanak uda parterako amaitzea da Ozio enpresaren helburua.

EDU MENDIBIL

Urteagako lanak hasteko agindua eman du Diputazioak

E.M.

Bi urte baino gehiago errepidea itxia egon ondoren, Urteagako Eskusarte harrobian mendi-mazelari eusteko lanak egunotan hastekoak dira. Victoriano Gallastegi alkatearen arabera, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak lanak hasteko agindua eman du.

Urteagako errepidea 2003ko azaroan itxi zutenetik, egin beharreko lanek hainbat atzerapen izan dituzte. Joan den urteko urrian abendura arte atzeratu zituzten eta orduan ere ez ziren

lanekin hasi., Diputazioko iturrien arabera, esleipen prozesuak atzeratu zuen lanen hasiera orduan. Kontuak kontu, hasieran agindutako lehen datatik sei hilabete igaro dira dagoeneko.

Itxierarengatik kaltetutako enpresa eta partikularrek mobilizazioak egin zituzten joan den uztaillean, Diputazioak agindutako lanak ez zirelako hasten. Orain, kaltetutakoek eta Udalak Diputaziora igorritako azken kexen ostean, badirudi lanak hastear daudela.

Avaya eta Geofisa enpresek egingo dituzte lanen lehenbiziko fasea. Trenbide zaharreko ibilbidea eusteko lanak egingo dira

lehenbiziko fase horretan. Plataformaren azpian euste-horma bat egitea aurreikusten da. Lanen lehenbiziko faseak 1,3 milioi euro inguruko aurrekontua dauka.

KALTETUTAKOAK, HASERRE

Kaltetutako enpresak eta partikularrak eszeptikoak dira lanen hasiera dela eta. Bien bitartean, Bergaratik Antzuolarako irteera zaharrea, gutxienez norabide batean errepidea zabaltzea eskatu dute, semaforoen sistema erabilita. Han inguruan bizi eta lan egiten dutenez gain, egunero Bergara eta Antzuola bitartean joan-etorria egin behar dutenek euren haserre agertu dute.



Bergaratik Antzuolara doan errepide zaharra 2003ko azaroan itxi zuten.

BERRIGARA

HAUTESKUNDEAK/ Hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik domekan

12.425 bergararrek dute boto eskubidea domekan

EDU MENDIBIL

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, 12.425 herritarrek izango dute bozkatzeko aukera domekan. Hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara izango dira zabalik. Gaur, egubakoitza, hauteskunde kanpainari amaiera emango diote hautagai ezberdinek.

Bergaran 19 mahai egongo dira eta herritarrek Seminarioan, Matxiategin, Martokon, Ibarrian eta Osintxun izango dute botoa emateko aukera.

Esan bezala, hauteslekuak 09:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik, herritarren botoak jasotzeko. Ohikoa denez, nortasun agiria, pasaporte edo gidatze-

karneta aurkeztu beharko da botoa eman ahal izateko.

Egunotan alderdi ezberdinetako hautagaiak bisitari izan ditugu herrian. Gaur, gauerdian, amaituko da kanpaina.

BI GAZTE ATXILOLUTA

Bestalde, Ertzaintzak I.A. eta I.R.bergarar gazteak atxilotu zituen joan den eguen arratsal-

dean, Batasunak apirilaren 9rako deitutako manifestaldiko kartelak jartzen ari zirela. Ordu bete inguruz kalean izan ondoren, atxilotuta eraman zituzten komisariara. Gazteek salatu dutenez, bost orduz izan zituzten han, "guri eta gure familiari Madrileramango gintuztela mehatxu eginez". Madrilgo Auzitegi Nazionalak eramango du auzia. Terrorismoa gorestea leporatzen diote gazteei.

EMAITZAK, ASTELEHENEKO GOIENKARIAN

Astelehenean, domekako emaitzen berri jaso ahal izango duzue Asteleheneko Goienerkarian. Besteak beste, Bergara zein inguruko herrietako emaitzak eta emaitzen gaineko iritziak jasoko ditugu.

Ertzaintzak bi gazte atxilotu zituen eguenean, Batasunaren aldeko kartelak jartzearen



Hauteskunde kanpaina gaur amaituko da. Irudian, Frontoian jarritako kartelak.



Aitor Galdos saritu du Elgoibarko IMHK


Elgoibarko IMH Institutuak Aitor Galdos bergararra nabarmendu du. IMH Sarien III. ekitaldian, 2005eko Ikaslerik Onenari zegoen saria eskuratu du Galdosek, lortutako espediente bikainagatik. Fabrikazio Mekanikoaren arloan, goi-mailako heziketa zikloa burutu du. Sari modura, 1.200 euroko ikasketa poltsa eskuratu zuen Galdosek asteleheneko ekitaldian.

Osintxuko zubi berria apirilaren 23an inauguratuko dute

E.M.

Osintxuko zubi berria inauguratuko dute hurrengo larunbatean, apirilaren 23an. Soralue enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak egin ditu lanak, 1,2 milioi euro inguruko aurrekontuarekin.

Uztailean hasi zituzten zubia eraikitze lanak. Zubia eraikitzeaz gain, harri lubetak egin dituzte Deba ibaian. Esan bezala, lanek 1.200.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Zubi berria Gerondo parean egin dute eta 35 metro inguru ditu. Aurrerantzean, inguruko enpresetara joateko zubi berria erabiliko dute kamioiek eta hango langileek. Osintxuko auzotarrek aspalditik aldarrikatu dute zubi berria. Orain, zubi zaharra berritzeko proiektua eskuartean du Udalak.



Zubi berriko lanak amaituta daude dagoeneko.

INAUGURAZIOA, ZAPATU EGUERDIAN

Datorren zapatuko inaugurazio ekitaldian, Udaleko ordezkariak gain, Jesus Catania MCCo presidentea, Miguel Herrera Sora-

luceko presidentea eta Rafael Barrenetxea Soralueko gerentea izango dira, besteak beste. Inaugurazio ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da.



- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ feng shui estudioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ Imitazioak

margolan
m a r g o a k

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
ONATI
943 78 24 13

JAIK/ Herriko koadrilei zuzendutako ekitaldiak izango dira Pazkoetako astelehenean

Dantza latindarren lehiaketa jokatu da Pazkoetan

E.M.

Aurtengo Mendekoste jaietako nobedadeen artean, dantza latindarren lehiaketa jokatu da zapatuan, maiatzaren 14an. Astelehenean, berriz, koadrilen eguna ospatuko da eta egun herri bazkaria eta koadrilen arteko jokoak izango dira San Martin plazan.

Pazkoetako zapatuko dantza latindarren lehiaketan dantzarako zaletasuna duten guztiek parte hartu ahal izango dute: *salsa, merengea, txa-txa-txa* eta *batxata* dantzatu beharko dira. Bikote irabazleak 600 euroko saria jasoko du.


Bestalde, bezperan, Pixpila Disko Busak festa giroa ekarriko du San Martin plazara: *drag-queenak, go-goak* edota DJak izango dira plazako *diskotekan*.

Rock kontzertuei dagokienez, Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada, Deskontrol (egubakoitzean), Kloakao, Vhaldemar, Black Sheeps, Obligaciones (zapatuan), Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem eta Skunk (astelehenean) izango dira Bideberrin.

Astelehenean, herriko koadrilei zuzendutako hainbat ekitaldi egongo dira, tartean herri bazkaria eta jolasak Plazan.

JON IRAEGIREN KARTELA

Bestalde, Jon Iraegik irabazi du Pazkoetako kartel lehiaketa. Sei lan aurkeztu ziren Udalak deitutako lehiaketara eta epaimahaiak



Jon Iraegiren kartelak iragarriko ditu aurtengo jaiak.

Pixpila Disko Busak drag-queenak, go-goak edota DJak ekarriko ditu San Martin plazara

lehen saria Iraegiri ematea erabaki zuen. Jai Batzordeko Luis Mari Gutierrez eta Felix Iñiguez de Heredia, Pol-Pol Argazki Taldeko Benito Cantero eta Bearteko Oihana Garitanok osatu dute epaimahaia. Iraegik 600 euroko saria jasoko du. Aurretik, Aratusteetako lehiaketa irabazi zuen.

LABUR

Batxilergoko eskaintzaren inguruko bilera informatiboa egunean Aranzadi Ikastolan

Aranzadi Ikastolak batxilergoko eskaintzaren berri emateko bilera informatiboa antolatu du. Aipatutako bilera egunean, hilaren 21ean, izango da San Martin plazako eraikinean, 19:00etan. Gairen interesatutako guztiak gonbidatuta daude.

1927an, 1937an, 1952an eta 1978an jaiotako bergararren ospakizunak apirilaren 23an

Apirilaren 23an lau *kintada* ospatuko dira: 1927an jaiotako Zumelaga jatetxean egingo dute bazkaria (izenematea, 15 euro, Euskadiko Kutxan); 1937an jaiotako Txarrantxan elkartuko dira afaltzeko (izenematea, 20 euro, Kortazarren); 1952an jaiotakoekin Errekin afalduko dute (izenematea, 10 euro, Errekin); azkenik, 1978koekin Azpeitxin izango dute afaria (izenematea, 30 euro, Euskadiko Kutxan, apirilaren 20a baino lehen).

1965. urtean jaiotako bergararrek afaria egingo dute datorren apirilaren 30ean

1965ean jaiotako bergararrek afaria izango dute apirilaren 30ean, Zumelaga jatetxean. Aurten 40 urte egingo dituzten bergarar guztiei afarira joateko deia egin diete antolatzaileek. Izenematea ondo tabernetan egin daiteke hilaren 23ra arte: Ariznoa, Fronton, Etxagi, *Popis* eta *Pol-Pol*. Argibideak: 629 56 29 25 (Karlos Etxaniz).

Iñaki Olaskoaga psikologoaren hitzaldia martitzenean, Mariaren Lagundian

Mariaren Lagundia Ikastolak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Iñaki Olaskoaga psikologoak *Gurasoak bere lekuan, ala morroi?* izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 19an, Mariaren Lagundian, 18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da hitzaldira joaten diren gurasoen seme-alabendako.

Uztaileko udalekuan lan egiteko begiraleak behar ditu Xipizaro ludotekak

Xipizaro ludotekak begiraleak behar ditu udarako. Uztaileko udaleku irekietan begirale lanetan jarduteko interesa dutenek, egubakoitzera arte, hilaren 22ra arte, dute izena emateko aukera. Orduetgia honako hau da: astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara. Argibideak Xipizaron, 943 76 23 76 telefonoan.

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atzera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

FISIOTERAPIA KONTSULTA BERRIA

Irene Unzueta

Ordua hartzeko:
San Martin Osasundegia
Ramon M^a Lili 2.

943 76 59 39

BERGARAKO TOKIKO 21 AGENDA KO BILERA

HELBURUA: Bergarako Tokiko Agenda 21 proiektuaren berri ematea

BILERA-LEKUA: Bergarako udaletxea (osoko bilkuren aretoa)

EGUNA: apirilak 20 (asteazkena)

ORDUA: 19:00etan

OHARRA: bilera Bergarako edonorentzat zabaldua dago, baita bertako eragile sozial eta ekonomikoei ere.



BERGARAKO UDALA

FUTBOLA/ Bi taldeak berdinduta daude sailkapeneko azken postuetan

Bergara-Anaitasuna bihar, zapatua, Agorrosinen

EDU MENDIBIL

Denboraldiko partidurik garrantzitsuenetakoa jokatuko du Bergarak bihar, Anaitasunaren aurka, 17:30ean. Bi taldeak jaitsiera saihesteko borrokan dira. Liga amaitzeko zazpi jardunaldiren faltan, Bergarak behar beharrezkoa du garaipena.

Bergarak garrantzi handiko hiru puntu lortu zituen aurreko astean Irunen, Real Union B taldeari 1-2 irabazi ostean. 1-0 galtzen joan eta gero, mahoneroek buelta eman zioten partiduari Aritz Agirrek eta Josu Zubikaraik sartutako golei esker. Zubikarairena partidua amaitzear zegoela etorri zen.

TALDE UGARI BORROKAN

Bergarak 34 puntu ditu orain eta sailkapeneko 17. tokian dago, Aretxabaleta eta Anaitasunarekin berdinduta. Liga bukaeran berdintasuna nagusi da azpiko taldeen artean. Sailkapeneko 10. tokian dagoen Pasajes taldea eta 19. tokian dagoen Uro-



ARTXIBOA

Bergarak beharrezkoa du bihar irabaztea. Argazkian, Alzola aurrelaria.

Jaitsiera saihesteko borrokan 10 talde 8 punturen tartean daude sailkapenean

laren artean zortzi puntu besterik ez daude. Sailkapeneko azken laurak jaitsiko dira. Gauzak horrela, hil ala biziko partidua da biharkoa Bergararentzat. Joaneko partiduan Bergara 0-1 irabazi zuen.

Oregi entrenatzaileak Aritz Agirre, Mikel Ormaetxea eta Unai Agirrerren bajak izango ditu bihar.

Ariznoako gimnasta gaztetxoek emaitza onak lortu zituzten Azkoitian

E.M.

Ariznoa gimnastek emaitza onak lortu zituzten Azkoitian. Infantil mailan, uztaiarekin, Jurdana Pildain hirugarrena izan zen, Usua Toledo eta Ainara Amoros laugarren geratu ziren (biak berdinduta) eta Lide Toledo bosgarren sailkatu zen. Kadete mailan, Eider Carrascok lehen postua lortu zuen mazoekin. Gazte mailan, zintarekin, Irati Arteaga bigarrena izan zen, Uxue Arregi, Maialen Legorburu eta Izargi Vegaren aurretik.

Taldeka, lehen postua eskuratu zuten Ariznoakoek alebin, infantil eta kadete mailetan.



ARIZNOA

Taldeko saioetan bergararrak lehen postuan sailkatu ziren.

LABUR

Bergara Hiria Txapelketako partiduak martitzenean, Udal Pilotalekuan

Martitzenean, hilaren 19an, Bergara Hiria Txapelketako kampionak berriak jokatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: 22 urtetik azpiko mailan, Goenagak eta Gorrotxategik Apezetxea eta Diez de Ultzurrunen aurka jokatuko dute. Nagusietan, Ander Mugu-ruza bergararrak eta Oier Mendizabalek Aranzeta-Arruti bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Igeriketa ikastaroak izango dira Agorrosingo igerilekuan, Kirol Zerbitzuaren eskutik

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, igeriketa ikastaroak izango dira hurrengo asteotan Agorrosingo igerilekuan. 3 urtetik 14 urtera bitartekoendako hasiera eta hobekuntza mailako ikastaroak izango dira. Era berean, 14 urtetik gorakoendako hobekuntza mailako ikastaroak izango dira zapatuetan eta domeketan.

Izenematea egiteko edota edozein argibidetakarako 943 77 91 67 telefono zenbakira jo dezakezue.

Lau futbol partidu zapatuan eta infantil mailako taldearen domekan, Ipintzan

Aste bukaeran bost partidu jokatuko dira Ipintzan: futbol-8ko nesken taldeak Gasteiz Cup taldea hartuko du zapatuan, 10:30ean; ohorezko kadete mailako taldeak Zarautzen aurka jokatuko du, 12:00etan; nesken senior mailako taldeak Añorga hartuko du, 15:30ean; eta lehen gazte mailako taldeak Ilintxa izango du aurrean, 19:30ean. Domekan, infantil mailako taldeak Beti Onaren kontra jokatuko du, 11:00etan.

Bergarako karateka gaztetxoak bikain aritu ziren Euskadiko Txapelketan, Bilbon

Joan den zapatuan Bilbon jokatutako Euskadiko Karate Txapelketan bikain aritu ziren karateka bergararrak: infantil mailan, Julen Arana eta Pablo Elkoroiribe hirugarren sailkatu ziren kumitetan; gazte mailan, berriz, Jon Gantxegi hirugarrena izan zen kumitetan eta Kepa Odriozolak laugarren postua eskuratu zuen. Aitziber Ferreirok, berriz, laugarren postua lortu zuen katetan zein kumitetan.

LABEGARAIETA

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: De Resaka-Pirulotarrak . Brescia
11:30: Kalaveras-Brescia Niu Tim
12:30: A Ze Flaxa-Niu Tim Kalaveras

10:30:Niu Tim-PDS Txipiron
11:30: Pagomendi-Canalejas . Errotagain
12:30: Errotagain-K. Piperrak . Pagomendi
16:00: Fit Autom.-Cosa Nos. . Irubide
17:00: Belengua-Irubide..... . Fit Autom.

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: PDS-Txipiron Niu Tim

18:00: All Blacks-KMP. Agirrebeña
19:00: Egurre-Agirrebeña SDTNT
20:00: SDTNT-Mongaxurrak. . Egurre


ARDATZA

Brikolajea

Ateak eta zokaloak
Horma-armairuak
Sarrailak
Heldulekuak

Koadroak markoan ipini
Era guztietako moldurak
Apalak
Kaxoiak

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93



JAUJA KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95



GAZTELU BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

MUSIKA/ Gabero, Mariaren Lagundiko eta Musika Eskolako abesbatzek emanaldia egingo dute eguenean

Musika Eskolako ikasleak protagonista, astelehenean hasiko den Musika Astea

EDU MENDIBIL

Astelehenean hasita, Musika Astea ospatuko da Bergaran. Herriko hainbat tokitan emanaldiak izango dira aste osoan zehar, musika txoko guztietara zabaldu nahirik. Musika Eskolako ikasleak izango dira protagonista nagusiak.

Asteleheneko aurkezpenean Arantzazu Garitano Musika Eskolako presidentea, Maria Jesus Ugalde Musika Eskolako zuzendaria eta Luis Abajo kultur zinegotziak hartu zuten parte. Herri-tarrei antolatutako emanaldietara joateko gonbidapena zabalteaz gain, antolaketan lagundu duten guztiei eskerrak eman zizkien.

USARTZA TALDEA MARTITZENEAN

Esan bezala, astelehenetik aurrera emanaldiak izango dira eguenero. Musika herri osora zabalteko asmoarekin, emanaldiok Sierbetako elizan, Zabalotegiko aretoan, udaletxe osoko bilkuren aretoan, Espaloian edota Ospita-

leko elizan izango dira. Martitzenean, hilaren 19an, Eibar-ko Usartza Txistu Taldeak emanaldia egingo du udaletxean, 19:00etan.

Maria Jesus Ugaldek azpimarratu zuenez, "txistua uste baino ezezagunagoa da gure artean. Jeneralean txistuaren arlo bakarra ezagutzen dugu, eta Usartza talde profesionalaren eskutik arlo ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu, perkusioarekin eta akordeoiarekin lagunduta".

Bestalde, opera gerturatzeko helburuarekin, eguaztenean, hilaren 20an, Bizet-en *Carmen* operaren DVD emanaldia izango da Miguel Altunan, 20:00etan.

Eguenean, berriz, Mariaren Lagundiko, Gabero eta Musika Eskolako abesbatzak emanaldia egingo dute Mariaren Lagundiko elizan, 19:00etan.

Musika Eskolako ikasleei zuzendutako emanaldi bereziak izango dira eta irakasleen laguntza eskertu dute antolatzailerak.

Rikardo Azkargorta margolaria izan da *Musika Astea* iragartzeko kartelaren egilea.



Arantzazu Garitano, Maria Jesus Ugalde eta Luis Abajo, asteleheneko aurkezpenean.

Juanjo Altuna, Rikardo Azkargorta eta Jone Telleriaren margo erakusketak

E.M.


Bergarako hiru margolarik erakusketak jarri dituzte egunotan. Rikardo Azkargortak Iruñean zabalduko ikusteko azken eguna da gaur. Hango Pintzel galerian (Conde de Rodezno, 6) 30 bat lan jarri ditu ikusgai. Gaur 16:30etik 20:30era dago zabalik galeria. Interneteko helbidean ere badago bisitatzeko aukera: www.galeriapintzel.com

Juanjo Altunak Gasteizko Raquel Recio galerian erakusten ditu bere azken lanak. Erakusketa apirilaren 27ra arte dago zabalik,

Dato kaleko 40. zenbakian. Altunak 35 lan zintzilikatu ditu. Astelehenetik zapatura dago aretoa zabalik, 11:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 21:30era.

JONE TELLERIA NAHIKARIN

Azkenik, Jone Telleriaren erakusketa Nahikarin dago ikusgai, apirilaren bukaerara arte. Hamahiru pintura lan eta argizatutako *ikus-kaxa* baten instalazioa jarri ditu Telleriak Nahikarin, bere esanetan "intuizioz eta ez oso era landuan eratutako paisaiaren espresio figuratiboa adieraziz".



Rikardo Azkargortaren *Asociaciones* izenburuko lana.

ARTXIBOA

LABUR

Zine maratoia gaztetxean gaur

Txapa Irratiak, Komite Internazionalisten eta Gazteen Asanbladaren laguntzaz antolatuta, zine maratoia izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean.

Txapa jaiaren gaineko bideoaren ondoren, *Bagdad rap* izenburuko dokumentala eta *Radio Favela* eskainiko dituzte.

Perkusio afrikarreko ikastaroa

Perkusio afrikarreko ikastaroa izango da apirilaren 22tik aurrera, Jardun elkartearen eskutik. Hiru saio egingo dituzte, apirilaren 22an eta 29an eta maiatzaren 6an, Arri-zuriagan, 18:30etik 20:30era.

Izena emateko epea apirilaren 18ra arte dago zabalik. Argibideak 943 76 36 61 telefono zenbakian.

Hiru kontzertu zapatuan Bergaran

Bihar, zapatua, hiru kontzertu izango dira Bergaran: Bartzelonako Asstrio taldeak emanaldia egingo du Galway's tabernan, 22:30ean; The Beat taldea Jamen joko du, 22:30ean; RDT, Karkaba eta Ultima neurona taldeak gaztetxean izango dira, 22:30ean.

Sukaldaritza lehiaketa jaietan

Pazkoetan ohikoa denez, herriko elkarten arteko sukaldaritza lehiaketa jokatuko da maiatzaren 14an, San Martin plazan, 11:30ean hasita. Partaideek bakailaoa pil-pil erara prestatu beharko dute.

Izena emateko epea maiatzaren 3ra arte izango da zabalik. Edozein argibidetarako 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakezue.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

ZAHARRAKBERRI

Antsietatearen gaineko hitzaldia izango da martitzen arratsaldean San Joxepe elkartean

IRATI AGIRREAZALDEGI

Kutzak antolatuta interes orokorreko eta osasunaren alorreko hainbat jardunaldi izango dira apirilean eta maiatzean San Joxepe elkartean. Hitzaldi hauetan gaurkotasun handiko gaiak landuko dira; baita eguneroko bizimodurako osasungarriak diren ohiturak eta jokabideak ezarri ere.

Lehenengo hitzaldia martitzen, apirilaren 19an izango da. 17:00etan hasiko da eta ordu eta erdi iraungo du.


Lehen saio honetan antsietatea izango da hizketarako gaia. Jose Luis Martinek eskainiko du hitzaldia; eta bertan, batetik, gaitasun horren sintomak antzematen irakatsi nahi da, ondoren aurrea hartzeko. Bestetik, norbaitek jasaten duenean aurka egin ahal izateko bideak ere jakinaraziko ditu hark.

Antsietate kontzeptuaren nondik norakoak azalduko ditu lehenengo, entzuleak gaian kokatu ahal izateko. Ondoren, gaitz honek sortzen dituen trastornoren eta gaixotasunaren sintomen berri emango du. Sintoma hauek izan daitezke fisikoak, psikikoak zein portaerari dagozkionak.

Antsietatea eta estresa sarritan gauza bera direla pentsatu ohi du askok, baina ez da horrela. Beraz, bi gaitz horien arteko desberdintasunak agertuko ditu Jose Luis Martinek.

Amaitzeko, antsietateari nola aurrea har dakioken jakinaraziko du eta horretarako zein tresna edo bide dauden.

Antsietatearen gaineko hitzaldiaz gain, maiatzean beste hiru jardunaldi izango dira. Bakarrik bizitzearen gainekoa bat; psikologiaren gainekoa bigarrena; eta osteoporosia gaitzat hartuta egingo da hirugarrena.



Antsietateari aurrea hartzeko tresnak eta bideak jakinaraziko dira hitzaldian.

LABUR

Bingo saioa eguen arratsaldean San Joxepe elkartean

Hilabetean bi bingo saio izan ohi dira erretiratuen elkartean, eta ohiturari jarraituz, eguenean, apirilaren 21ean, bingoan jokatzeko aukera izango da San Joxepen. Saioa 17:30ean hasiko da eta nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte.

San Joxepeko batzar orokorra apirilaren 26an

Datorren apirilaren 26an urteko batzar orokorra egingo dute San Joxepe elkarteko erretiratuek, 17:00etan. Hainbat kidek zuzendaritza utziko dute, eta beste batzuek aukeratu dituzte talderako. Gaiak duen garrantzia dela eta batzarrera ahalik eta bazkide gehien joateko eskatu dute.



San Joxepeko abesbatza bihar Oreretan

San Joxepe elkarteko abesbatzakoek Los Arcosera egindako irteeran ateratakoa da erretratu hau. Urtero egin ohi dute txangoren bat eta aurtengoan upategi batera joan dira. Bestalde, asteon egin dute emanaldirik San Joxepekoek. Atzo, eguena, Zumarragako Zelai Arizti aretoan abestu zuten, Gure Txoko erretiratuen elkartearen aste kulturaleko ekitaldien baitan. Bihar, berriz, Oreretan jardungo dute, Maialen elizatzooan, 19:30ean, Beti Bizkor elkarteko Maialen abesbatzarekin.

Informatika ikastaroak erretiratuen egoitzan astelehenetik aurrera

I.A.

Ikasturteko bigarren hiruhilabetekoa hastear den honetan, San Joxepetik jakinarazi digute hiru informatika ikastaro izango direla datorren astetik aurrera.

Informatikako oinarrizko ikastaroa apirilaren 19an hasiko da eta martitzen eta eguenean izango dira eskolak 11:00etatik 13:00etara. Guztira, 24 orduko ikastaroa izango da.

Internet ikastaroa izango da bigarrena. Oinarrizko ezagupenak dituztenek euren jakintzak sakontzeko aukera izango dute. Eskolak arratsaldez izango dira, eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Lehenengo saioa apirilaren 20an izango da.

Arratsaldez egingo dute baita ere argazki eta irudi ikastaroa. Apirilaren 18an hasita astelehenetan emango dituzte eskolak, 17:00etatik 19:00etara.



San Joxepeko informatika ikastaroek harrera bikaina izan ohi dute.

San Joxepe elkartetik jakinarazi digutenez, ikastaroak astelehenean hasiko badira ere, interesatuek oraindik badute

aukera izena emateko. Horretarako, idazkaritzara jo beharko dute eta zein ikastarotan parte hartu nahi duten esan.

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

Mujika
gozotegia




Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

BERGARA
Margoak

Certificado ISO 9001 por







Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

GRUPO RKUZ


Zure etxea da

1950
2005



ALTZARIAK

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



ALTZARIAK

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3




Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA




ELEKTRAGAILUAK

Andramari auzunea




Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Bergarako zein
auzotan dago
frontoi hau?



Super BM emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANTXON UGALDE erendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Antxon!

Galderaren erantzun zuzena: **Ezkerrekoa, Bidekurutzetan; eskumakoa, Zubietan.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Onak arrautzak

L. kategoria. 63-73 g Dozena.

0,82 €

136 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA ELGETA

Andra Mari Martiko egunean

Elizamendiko harmailetan ateratako argazkia da hau; 1972ko Andra Mari Martiko egunean.

Neskak uniforme jantzita daudela dirudien arren, ez da horrela. Garai hartako moda omen zen gona horiek janztea.

Lehenengo ilaran: Elena Elortza, Pilar Laconcha, Juan Elortza, Andres Sarasua, Rita Arrieta, Luis Atorrasagasti, Carmen Loidi, Benita Loidi eta Jesusa Guridi.

Bigarren ilaran: Maria Jesus Loidi, Rosa Mari Igartua, Beatriz Zabalondo, Itziar Idigoras, Txarito Arregi, Mari Carmen Igartua eta Jose Alberto Arregi.

Behean jarrita: Amaia Arantzeta, Sarita Sarasua, Ainhoa Elortza, Luisito Atorrasagasti, Idoia Ubera, Javier Loidi eta Mari Arrate Sarasua.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Carmen Loidi

FARMAZIENTXANDA

EGUBAKOITZA, 15

GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

ZAPATUA, 16

ESTELLA. Matxiategi 5 . . 943 76 19 63

DOMEKA, 17

ESTELLA. Matxiategi 5 . . 943 76 19 63

ASTELEHENA, 18

MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15

MARTITZENA, 19

CAMACHO. Oxirondo 4. . 943 76 11 74

EGUAZTENA, 20

ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

EGUENA, 21

GUALLAR. San Antonio 5 . 943 76 11 05

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00

Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa. 943 76 62 46

Ertzaintza 943 53 47 20

Osasun etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua . . . 943 78 90 27

Antzuolako medikua . . . 943 76 62 23

Odol emalleak 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak. . . 943 76 51 06

GARRIAOK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea . . . 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultura etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaletgia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal Euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko bigarren domekan,

13:00etan.

San Pedro

Hileko hirugarren domekan,

09:30ean.

URBANOAK

San Lorenzo/San Jandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,

11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,

16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20

eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean),

Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo

(Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi

okindegia), Zurradero, San Antonio

(Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre,

Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta

(Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20,

10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05,

13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik),

16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40,

18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta,

Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia

(Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde),

Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga


eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Domekako hauteskundeetan botoa emateko asmorik baduzu?



MARI MAR MORENO

Ez, ezin dudalako. Izan ere, Nafarroan nago erroldatuta eta ez daukat botoa emateko aukerarik. Hala ere, hauteskunde kanpainaren gaineko interesa izan dut, nahiz eta bertan esandakoari kasu handirik ez egin.



FELIPE MUÑOZ

Bai, joango naiz baina oraindik ez naiz emaztearekin adostasunera iritsi zeini botoa eman erabakitzeke. Biondako gauzarik egokienak proposatzen dituen alderdia aukeratuko dugu.



PASCUAL RUBIO

Bai, nire betebeharra da botoa ematera joatea eta erabakita daukat zeini eman. Hala ere, kanpainetan esandakoei ez diet kasurik egiten; promesa asko egin arren ez dituzte betetzen eta.



BEGOÑA ARISTI

Bai, dudarik gabe joango naiz domekan. Gainera, etxean denok ongi pentsatuta daukagu aspalditik botoa zeini emango dugun. Beraz, kanpainan esandakoek ez dute nire botoa baldintzatzen.



ALBERTO OBREGON

Oraindik ez dut erabaki. Kanpaina bera ere ez dut askorik jarraitu. Hala ere, hauteskundeak garrantzitsuak direla uste dut. Egundaukagun gobernua etor daitekeena baino hobea dela uste dut.



MAITE GOMEZ

Bai, noski, beti joaten naiz bozkatzera. Kanpaina hasi aurretik nahiko argi izaten ditut ideiak, eta alderdi bakoitzak egindakoak hartzen ditut kontuan. Hala ere, kanpainaren jarraitpena egiten dut.


TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK BOLUKO BIDEA Aranerrek eta Boluko bizilagunen izenean emakume batek honako kezkak azaldu dizkigu: "San Pedrotik Bolura arteko bidean ez dago argirik; bestetik, zabor edukiontzia kendu egin ditu Udalak kamioia iristen ez delako; eta gainera, txirilo batzuk ipini dituzte eta aparkaleku asko kendu", esan digu. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Peripuesto"



Ondo apaindua eta jantzia.
— Baserritarra izan arren gizon peripuestua da.

BESTEKEESANA

“Urteaga kalea ibilgailuendako norabide bakarrean zabalteko aukera dagoela uste dugu.

Beharrezko hesiak eta trafikoa bideratzeko semaforoak baino ez dituzte ipini behar horretarako. Besterik ezean kalea Antzuolako saihesbideko sarreran baino ez lukete itxi behar; honela, guk, bizilagunok, gutxienez Bergara aldera joateko aukera izango genuke. Zazpi egunen buruan lanak hasiko zituztela esan zuten, baina guk ez dugu hori sinetsiko makinak Urteagan lanean ikusi artean. Izan ere, orain arte epe asko ipini dituzte lanak hasteko, baina gero ez da bat bera ere bete. Beraz, ez gara alde aurretik poztuko”

URTEAGAKO BIZILAGUNAK
‘El Diario Vasco’/05-04-10

BERAIEKDIÑO/ Jose Angel Mikeo



Amen Jesus!

Hil da Aita Santua, Amen. Lurperatu dute, Amen. Bukatu da telebistako emankizun buka ezina. Ikusgarria benetan. Aitortu behar dut: erritualek txunditu egiten naute, erakarpen esplikaz ezin bat dute nigan. Orduak emango nituzke mugimendu, prozesio, janzkera, birreta, mitra, kolore eta abarren esanahiak aztertuz. Argi daukadana zera da: erritualek, ohitura bihurturik, herriaren kohesiorako balio handia dutela.

Baina, dena erritualetan gelditzen deanean, ezer gutxirako balio du. Errepikapen hutsa da eta emozioa sor dezakeen arren, esanahirik gabe egiten da. Kasu honetan pertsona bati egin zaion agurra, pertsonaren adorazio eta miresmen bihurtu da. Ez dio axola zabaldu duen mezuak. Bera adoratzeko, erlikia gisa, zentratu da askoren jarrera. Ez Kristo eta ez Jaungoiko; are gutxiago ebanjelioko mezua; guztia baztertuta ikusi dut, gurutzeari muin egitean bere kristautasuna laburtzen duenaren erara.

Santo subito zihoen zenbait, inorendako santutasuna eskatzean zerbait hobetuko bagina bezala. Utz diezaiogun Karol Wojtylari bere ekintzen borondatea defenda dezan zeruetako epaitegian. Tu est Petrus... esan eta San Pedro elizaren oinarri bihurtu zuen Kristok. Gerora,

“Erritualek ohitura bihurturik kohesiorako balio handia dute”

oinarri izan beharko lukeen kargu hura, Erroma inperialeko Zesarren lekua hartzean, oinarria teiltatuko gailurrean jarri eta inperioaren oinordeko bihurtu zen.

Honetan guztian unerik interesgarriena, justu, Aita Santurik gabe gauden une hau da. Behingoz gizaki bakoitza bere horretan aitortuko bagenu bezala dirudi (Kardinalak salbu). Elkarrizketa, partehartzea, eliza zer izan behar den eta zer ez den izan behar... Erroma inperiala errepublikarra bihurtuz berriz. Tokian tokiko eliza, behartsua eta behartsuena, egiterik ba al dago? Beharbada Aita Santua Erromako apezpiku izatera mugatuz etorkizuna urratzen has daiteke Eliza.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 9	3 °C		
MAXIMOA Eguaztena, 6	24 °C		
ASTEKO EURIA (l/m ²)	65,2 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	24 °C	7 °C	- l/m ²
Eguena, 7	16 °C	8 °C	10,8 l/m ²
Egubakoitza, 8	9 °C	8 °C	39,1 l/m ²
Zapatua, 9	8 °C	3 °C	11 l/m ²
Domeka, 10	10 °C	4 °C	5,9 l/m ²
Astelehena, 11	12 °C	7 °C	0,3 l/m ²
Martitzena, 12	12 °C	10 °C	- l/m ²

JON IRAEGI

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a / 239. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Errekaren proiektua behin betiko onartu dute

AINTZANE IRIZAR


Aurreko asteko egubakoitzean, apirileko osoko bilkuran, Deskarga erreka bideratzeko proiektua behin betiko onartu zuten. Otsailean udalbatzarrak onartutako proiektu egokituari aldaketa txiki batzuk egin dizkiote. Beste hainbat, berriz, ez dituzte kontuan hartu.

Martxoaren 15ean amaitu zen erreka bideratzeko proiektuari alegazioak aurkezteko epea. Bederatzi talde, alderdi eta herritarrek aurkeztu zituzten alegazioak.

Hona hemen onartu dituzten alegazioetako batzuk: erreka kontrako lurzorua izotzari aurre egiteko modukoa izatea; urgeldiak eta presa txikiak egitea, arrainen biziraupena bermatzeko eta ingurumenaren inpaktuaren azterketa sinplifikatua egitea.

Bestalde, Antzuolako Udalak eskatu zion Jaurlaritzari erreka arazoari irtenbide integrala ematea. Horrela, erreka herrian sartu aurretik, hondakin solidoak batzeko sistema jarriko dute.

Beste hainbat alegazio, baina, atzera bota dituzte; hala nola, udaletxe pareko zubia zabalagoa egitea eskatzen zuena, gainezkabide estuagoa eskatzen zuena edota ostatuko zubia ez botatzea eskatzen zuena.



Eperra elkartaren atzeko aldean egingo dute bat gainezkabideak eta errekek.

Erreka herrian sartu aurretik, hondakin solidoak batzeko sistema jarriko dute

MAIRUAREN ALARDEA, PLAZAN

Udaleko arduradunek azaldu digutenez, Mairuaren Alardea plazan egiteko arazorik ez da egongo. Danbor jotzaileak eta kanoiak tokiz aldatu behar dira, baina, arazorik gabe ospatu ahal izango da herrian hain garrantzitsua den jaia.

LABUR

Larrialdien aurrean behar bezala erantzuten ikasteko hitzaldiak eskolan

Apirilaren 21ean eta 28an, 18:00etan, larrialdien aurrean behar bezala jokatzeko hitzaldiak izango ditugu, Herri Ikastetxeetan. Bihotzaren eta biriken erreanimazioa eta arnas bidearen buxatzearen aurrean zer egin ikasteko aukera egongo da, besteak beste. Herritar guztiei zuzenduta daude hitzaldiak eta Oihana Jauregi antzuolarrak egingo ditu.

Kanpo zorra ezabatzearen aldeko 437 sinadura batu zituen Anelkarrek herrian

Kanpo zorra ezabatzearen alde, Bidezko Merkataritzaren alde eta gastu militarren aurka, 437 sinadura batu ditu Anelkarrek. Aipatutako helburu horien guztien alde lan egiteko sortu zen Legegintzako Herri Ekimena izeneko plataforma. Anelkar plataformak kide ez den arren, sinadurak batzen ibili da herrian, plataformaren horri laguntzeko. Euskal Autonomi Erkidegoan 44.000 bat sinadura batu dituzte, eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztu, Txinorako Herrialdeekiko Justizia eta Elkartasun Gutuna eskatzeko.

Domeka arratsaldean Kulkirekin jolaserako aukera izango dute umeek

Kulkirekin baserriarekin lotutako jolasekin eta jokoekin arratsaldea pasatzeko aukera izango dute Antzuolako umeek. Zurrategi plazan izango da ekitaldi hori, 18:00etan.

Baserritarren eguneroko lana jolas bihurtzen dute Kulkirekin; horrela, baserriko jarduerak hobeto ezagutzeko aukera izango dute neska-mutikoek.

Txikizioak direla eta, Udalak eskutitzak bidali dizkie gaztetxoek gurasoei

Aurreko asteburuan hainbat kalte eragin zituzten ezezagun batzuek Olan etxean eta Herri Ikastetxeko jolastokian. Olanen, gutunontziak apurtu eta barruan zegoen propagandariak eman zioten; jolastokian, berriz, saskibaloiko saski bat apurtu zuten.

Ez da horrelakoak gertatzen diren lehen aldian; gauzak horrela, Udaleko arduradunek erabaki dute DBHko eta batxilergoko ikasleen gurasoei gutun bat bidaltzea, euren seme-alabekin gertatzen diren gaitzespenak egiteko eskatuz. Udalaren nahiá da herriarrok arazo honen gainean kontzientzia hartzea eta denon artean arazo honi konponbidea ematea.

OSPAKIZUNAK

Independentzia Egunak eta Elkartasun Festak bat egingo dute

AINTZANE IRIZAR

Antzuolako Gazte Asanbladak antolatuko du Independentzia Egunak, ohi bezala. Aurten, baina, berrikuntza batekin datorrigu egun hori. Izan ere, Anelkarrekoak egun horretan parte hartzea gonbidatu dituzte, eta Elkartasun Festa egingo dute arratsaldean.

BAZKARIA, FRONTOIAN

Bazkal aurretik hasiko dituzte ekitaldiak gazteek. 13:30ean, poteoa egingo dute trikitilariekin. 14:30ean izango da bazkaria, frontoian. Ondoren, gaztetxearen gaineko film laburra eskainiko dute eta txalapartariaren eta bertsolarien saioa izango dugu. Anelkarren Elkartasun Festaren ondoren, txarangarekin bate-

ra, poteoa egingo dute. Baserritar jantzita joatea eskatzen diete antolatzaileek herritarrei.

ELKARTASUN FESTA

Zurrategin, 19:00etan, txistorra jana antolatuko dute Anelkarrekoek; batutako dirua Kongorako, Senegalerako eta Brasilerako izango da. Toka jokoa ere jarriko dute hantxe.



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

ELKARRIZKETA

GURUTZ LARREA/TXIRRINDULARIA

“Herrian jokatu den Gipuzkoako Klasikorako prestatzen dihardut”

A.I.

Junior mailako bigarren urtea du aurtengoa Gurutzek; Bergarako Lokatzako Sumofic taldean dihardu. Martxoan hasi dute denboraldia, baita ondo hasi ere; bigarren postu bi lortu ditu eta Gipuzkoako selekzioarekin ibili da.

Denboraldia hasi berri duzue eta dagoeneko bigarren postu bi egin dituzu. Pozik egongo zara, ezta?

Bai, baina, lehenengo postua hain gertu izatea eta ez lortzea ere pena da. Aurreko asteburuan Deban bigarren geratu nintzen eta Aste Santu aurretik, Azpeitian. Eibarko lasterketan, berriz, seigarren sailkatu nintzen.

Datorren astean jokatzeko da Gipuzkoako Klasikoa Antzuolan. Bereziki prestatu duzu lasterketa hori?

Bai, Uzarragakoa prestatzen dihardut momentu honetan; denboraldi hasieratik, helburua lasterketa hori izan da. Ia ondo ateratzen zaidan eta lehenengo hoge postuetan sailkatzen naizen. Maila handiko lasterketa izango da; Estatuko txirrindulari onenak etorriko dira eta konforme geratuko nintzateke hoge onenen artean sailkatuko banintz.

Orain dela pare bat aste Britainian izan zara, Gipuzkoako selekzioarekin. Zer moduz ibili zinen?

Gaizki; goizean, erlojuz kontrako lasterketan, nahiko ondo moldatu nintzen. Badirudi, baina, ez nintzela ondo errekuperatu eta arratsaldeko lasterketan ez nintzen batere ondo ibili eta lasterketa laga egin nuen. Lasterketa gogorra izan zen: gorabehera asko zituen, haizeak gogor jotzen zuen eta abiadura handian ibili ginen.

Datorren urtean amateur mailarako jauzia egiteko gogoia izango duzu, ezta?

Asmo hori daukat, baina, gogorik ez. Asmoa daukat oraindik ez dudalako txirrindularitza



A.I.

“Amateur mailara pasatzeko asmoa badaukat, baina, egia esan, gogo handirik ez”

lagatzerik nahi, baina, gogo handirik ez; izan ere, junior mailan oso gustura nago. Amateurren maila serioagoa da, sakrifizio handiagoa eta denbora gehiago eskatzen du.

Momentu honetan zeu zara Antzuolako txirrindulari baka-


“Sakrifizio handia eskatzen duen kirola da txirrindularitza eta horregatik ez da animatzen jendea”

rra. Zergatik ez da animatzen jendea?

Sakrifizio handia eskatzen duelako: janaria zaindu behar da, parrandarik ezin dugu egin eta entrenamenduak gogorrak dira. Dena dela, orain herriko hiru gaztetxo hasi dira Lokatzan.

GAZTE ASANBLADA

Gaztetxeak itxita jarraituko du oraingoz



ARTXIBGA

Gaztetxea hankaz gora eta zikin-zikin eginda zegoen.

AINZANE IRIZAR

Orain dela bi aste itxi zuten gaztetxea; aurreko asteko egubakoitzean batzar orokorra egin zuten gaztetxearen etorkizuna erabakitzeko eta momentuz, behintzat, gaztetxeak itxita jarraituko duela erabaki zuten han elkartu ziren gazteek.

Hilaren 2an, zapatua, erabaki zuten Antzuolako Gazte Asanbladako kideek gaztetxea ixtea. Horretarako arrazoiak da gaztetxean ibiltzen diren hainbat koadrilak ez dituela hartu behar dituen ardurak hartzen. Gauzak horrela, azkenaldi honetan hankaz gora eta zikin-zikin eginda

zegoen lokala. Hori ikusita, gazte asanbladako kideek erabaki zuten gaztetxea itxi egingo zutela. Ez zen, baina, behin betiko erabakia izan.

Egubakoitzean batzar orokorra egin zuten gaztetxearen etorkizuna erabakitzeko. Momentuz, gaztetxeak itxita jarraituko duela erabaki dute. Bien bitartean, egubakoitzero batzarrak egingo dituzte, gazte guztien artean gaztetxearen funtzionamendua zein izango den adosteko. Hilaren 22an egingo dute lehenengo batzarra, 19:30ean.

Orain arte, koadrila bakoi-tzak giltzak izan ditu; eskubide horren truke, baina, betebeharrak ere bazituzten, lokala garbitzea, esaterako.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Apirilak 16
12:00: Antzuola-Soraluze (Kadeteak)
Apirilak 17
12:00: Antzuola-A. Arizmendi (Neskak)

EMAITZAK

FUTBOLA
Antzuola 2 Lasarte-Oria 2 (Erreg.)
Urki 1 Antzuola 5 (Kadeteak)
Antzuola 0 Almen 3 (Neskak)
Antzuola 5 Bergara 4 (Infantilak)

EMAITZAK

PILOTA
Udaberri Saria
Olalde-Beloki (eskuz kad.) . . . 22-10
Olalde-Aretxabaleta (eskuz nag.) 13-22
Real Soc.-Olalde (pala motzean) 37-40
Deba Arroko txapelketa
Eskoriatza-Olalde (eskuz kad.) . . 13-22

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko apirilaren 15a / 222. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Zerga ordaintzeko epea zabalik herriko 686 ibilgailuen jabeek

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aurtengo Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Errolda onartu dute eta, behin jendaurrean ipinita, ibilgailuen gaineko zerga kobratzeari ekingo diote. Guztira 686 ibilgailu daude Elgetan, gehienak turismoak dira eta gutxien traktoreak.

Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Errolda udaletxean dago ikusgai. Apirilean barrena zerrenda aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute ibilgailuen jabeek. Horretarako udaletxeko bulegoetara bertara jo beharko dute. Zerga ordaintzeko azken eguna maiatzaren 31 da.

Erreziboa helbideratuta dutenei banketxetik kobratuko zaie hilaren amaieran. Gainontzeko erreziboak, berriz, etxeetara bidaliko dituzte. Ondoren bakoitzak banketxean egin beharko du ordainketa.

TURISMOAK GEHIEN

Guztira 686 ibilgailu daude Elgetan. Turismoak dira gehienak, 572 hain zuzen ere. Kamioiak 43



Trakzio mekanikozko 686 ibilgailu daude guztira herrian; gehienak turismoak, 572 hain zuzen ere,

dira. Ondoren motorrak daude, 44 guztira. Erremolkeak eta traktoreak, berriz, 14 eta 13 dira hurrenez hurren.

Zergetan turismoek ordaintzen duten batez bestekoa 120 euro da. Zerga handiena karga handiko kamioiek ordaintzen

dute, 261,20 euro. Udalak guztira 63.018 euro jasoko ditu Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen zergetatik.

KIROLA

Skate ikastaroa datozen bi zapatuetan

I.A.

Espaloiak skate ikastaroa antolatu du datozen bi zapatuetarako. Ikastaroak arratsaldeko 17:30ean izango dira.

Antolatzaileen esanetan, "Espaloian ikusi genuen, txikiendako eta helduendako bazirela ekintzak, baina adin tarte batekoendako, 12 eta 18 urte bitartekoendako ez genuela gauza askorik antolatzen. Beraz, euren dako izango da batik batik ikastaroa. Gainera, herrian patinetearekin ibiltzen direla jakin-

da, ikastaroak harrera ona izango duela uste dugu".

TEKNIKAK

Kiroldegi kanpoko kantxan patinetean ibiltzeko U formako pista ipiniko dute, eta eguraldi txarra eginez gero Espaloi barruan.

Skate zalea den Zaldibarko gazte batek hainbat teknika irakatsiko dizkie ikastaroan parte hartzen dutenei, eta jardunaldietan musika izango dute lagun.

Bazkideek hiru euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek sei euro.



Patinetean ibiltzeko U bat ipini eta teknikak azalduko dituzte.

LABUR

Odol ateratzea martitzenean udaletxean

Odol emaien elkartetik jakinarazi digutenez, aurtengo lehen odol ateratzea datorren astean izango da. Nahi dutenek udaletxera jo beharko dute 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hurrengoa urriaren egingo dute.

Irteera antolatu dute Galiziara erretiratuendako

Erretiratuendako irteera antolatu dute Galiziara joateko. 98 euroren truke autobusez egin beharreko bidaia eta sei gaueko egonaldia izango dute. Bertan hainbat txoko ezagun ikusteko aukera izango da. Interesatuek Miren Villarri deitu behar diote izena emateko (943 76 80 34).

Ikastaroa izango da KZgunean apirilaren 27an

Apirilerako bi ikastaro antolatu zituen KZguneak Interneten trebatu nahi dutenentzako. Apirilaren 13an izango den lehena eta hurrengoa apirilaren 27an egingo dute. Postaltatik bidaltzen irakatsiko dituzte tutoreak 16:00etatik 18:00etara. Egun horretan bertan irakaslea KZgunean egingo da 16:30etik 20:00etara bitartean zalantzak argitzeko.

Kauta eta Keike taldeen kontzertua bihar gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertua izango da 22:30ean gaztetxean. Andoaingo Kauta lauko eta besteak beste Izan zaitzazu diskoko kantuak eskainiko dituzte. Bestetik, Oinetan kea diskoko rock doinuak eskainiko ditu Elgetara Lea-Artibaiako Keike boskoteak. Sarretrak hiru euro balio du.

ELKARRIZKETA

XABIER UBERA/PILOTARIA

“Orain, profesionaletan, partidu gehiago jokatzeko aukera izango dut”

I.A.

Xabier Ubera pilotari elgetarrak profesional mailara egin du jauzi Ortago enpresa berriaren eskutik. Uda partean jokatuko ditu batez ere partiduak. Hala ere, jauzi honek ez dio aldaketa askorik eragingo.

Profesional mailan jardungo duzu orain. Nola hartu duzu jauzi hau?

Enpresa orain sortu den arren aurrez hitz eginda nuen arduradunekin. Hala ere, gustura hartu dut salto hau. Izan ere, amateur mailan jokatzeko jadanik ez neukan horrenbesteko ilusiorik.

Ordago enpresa sortu berriarekin jardungo duzu. Nolatan izan duzu aukera?

Iazko uda partean, partiduak jokatzeko nabilela enpresako arduradunak etorri zitzaizkidan proposamena egi tera. Eurekin hitz egin eta adostasuna lortu genuen.

Zer dakar zuretzat aldaketa honek?


Ez da aldaketa handia izango. Lehen astean partidu bat edo bi jokatzeko banituen orain gehiago izango dira, besterik ez. Batez ere uda partean jokatuko ditut partiduak. Maiatzetik irailera bitartean; gero neguan ikusi beharko da nola antolatzen duten arduradunek gure jokoa.

Uda partean jokatu duzue batez ere. Zein txapelketatan?

Herrietako jaietan antolatzen dituzten partiduak izango dira batez ere. Gustuko ditut horrelako partiduak. Frontoiko giroa eta jokatzeko modua alaiagoak dira eta eroso sentitzen naiz

Asegarce edo Asperen mailan ez zarete egongo. Inoiz maila horretan jarduteko esperantzarik?

Sekula ez dut enpresa horietan sartzeko pretentsiorik izan. Gorputza ere ez dut maila horretan jarduteko. Baina nagoen lekuan konforme nago.



I.A.

“Amateur mailan jarduteko jadanik ez nuen horrenbesteko ilusiorik”

Nola ikusten duzu zure burua profesionaletan?

Orain enpresan gaudenok aurrez ere jokatu izan dugu elkarrekin. Denok ere antzerako maila dugu, ez dago nabarmentzen denik, eta eurekin ongi moldatuko naizela uste dut.

“Uda partean, herrietako jaietan jokatu dugu batez ere, eta giro hori gustuko dut”

Aurrera begira zein aurrerakuspen egin duzu?

Ordago orain enpresa modura sortu den arren, talde honek lehen ere partidu asko antolatzen zituen. Beraz, partiduak dauzkagun bitartean aurrera egingoa beste asmorik ez dut.

KULTURA

Chapertonsen ‘Boom’ lana gaur Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, antzerkia izango da, 22:30ean, Kataluniako Chapertons taldearen eskutik.

Feliu Plasenciak, Jordi Del Riok eta Kike Ferragutegak osatutako hirukoak Boom lana eskainiko du Espaloian.

Aktoreek ez dute hitzik egingo, baina irudimena eta pneumatikoak erabiliz publikoa gozaziko dute. Tamaina askotako pneumatikoekin lasterketetako motorrak, auto bat, zirkuko elefantea, igela, eulia... irudikatuko dituzte, besteak beste.

Antzerkia ikusteko bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte; gainontzekoek, berriz, 12 euro.

ERAKUSKETA

Bestalde, bihar, zapatua, Zuriñe Gredillaren egur-lanekin erakusketa ipiniko dute Espaloian, apirilaren 23ra bitartean.

Barakaldoko neska honek Debako Arte Eskolan egin zituen ikasketak eta ondoren Paulino Larrañaga Eibarko tailagilearekin hobetu zuen teknika. Bakarrik zein taldeka hainbat erakusketa egindakoa da eta artisau azoketan ere izaten da.

ESKOLA TXIKIAK

Zozketa Eskola Txikien jaiaren alde

I.A.

Eskola Txikien Jairako dirua atertzeko zozketa txartelak ipini dituzte salgai. Txartelak herriko denda eta tabernetan eros daitezke euro baten truke eta zozketa ekainaren 12an egingo dute.

Guztira sei sari daude eta saridun bakoitzak jasoko duen sorta ez da nolanhikoa.

Herriko dendari eta zerbitzuen jabeek doan emandako sariak dira denak, eta antolatzaleek haien laguntza eskertu nahi dute.

Herriko ostatueta gaua pasatzeko aukera; jatetxeetan otorduak; ile apaindegia, masaje zein estetika zentroetako tratamenduak edo erosketa txartel zein deskontuak daude sarien artean.

KIROLA

ETB KANTXA (PILOTA)

Apirilak 15
20:30: Txertudi-Iribar (23 urtez azpikoak)
Gero: Izagirre-Setien (23 urtez azpikoak)
Gero: Olaetxea-Zubieta (23 urtez azpikoak)
Gero: Jauregi-Iriarte (23 urtez azpikoak)
Gero: Apeztexea-Rodriguez (23 urtez azpikoak)

Apirilak 16
16:30: Diaz-Vazquez (Kadeteak)
Gero: Madariaga-Sagastibeltza (Kadeteak)
Gero: Calvo-Ezeiza (Kadeteak)
Gero: Etxeberria-Lopez (Kadeteak)
Gero: Irazustabarrena-Gandiaga (23 urtez azp.)
21:30: Garikagoitia-Ezkurdia (Kadeteak)
Gero: Bergera-Zubieta (Kadeteak)
Gero: Etxeberria-Etxaniz (23 urtez azpikoak)
Gero: Bengoetxea-Yubero (23 urtez azpikoak)

Apirilak 17

10:45: Elezkano-Agirrezabalaga (Kadeteak)
Gero: Urrutikoetxea-Olasagasti (Kadeteak)
Gero: Jaka-Zinkunegi (Kadeteak)
Gero: Lizarralde-Idoate (Kadeteak)
Gero: Sarasola-Martin (Kadeteak)

ARETO FUTBOLA

Apirilak 16
15:00: La Kokotxa- Maccabi ... Vicios
16:00: Vicios-Txapela ... La Kokotxa
17:00: Añiketan-Fuxion ... Isspro
18:00: Makanaki-Isspro ... Añiketan

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko apirilaren 15a / 2. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS1084/02

ENRIQUEZ/BANDA BARDO TALDE ITALIARREKO ABESLARIA

“Doinu akustikotik sortzen da dena, bilatzen ari garen komunikazioa da”

ARKAITZ BILLAR

Gaztelekuan joko du bihar, zapatua, Banda Bardok, iaz Italian kontzertu gehien eman zuen taldeak. 1996tik hona disko bat grabatu du bi urtean behin eta gelditu gabe ibili dira hara eta hona. 22:30ean da kontzertua.

Diskoak ez ezik, kontzertu asko eta DVDA ere egin dituzue. Zein da lanerako duzuen filosofia?

Toki baztertu baina ederra aurkitzen dugu eta bertan gelditzen gara albuma idatzi arte. Etxe batean sartzen gara *Finaz* moduko pertsona batekin, bere gitarrarekin, eta *Catax* moduko beste batekin, ideia grabatzailearekin. Horrela, 10 egun eta 10 gauetan gogoan eta bihotzean ditugun hitz, pertsona eta istorio guztiak gogoratzen ditugu.

Gure ahalegina da geure burua ez errepikatzea, gu geu izatea, jatorrak izatea.

2001ean zuzeneko diskoa kaleratu zenuten. Estilo aldaketa egon da harrez gero?

Ez. Ez dugu estilo berezirik, gure zorionerako, edozein dantza jo dezakegu, edozein erritmo; mazurcatik hasi eta rock-and-rolleraino.

Nolakoak dira kaleratu dituzuen azken bi lanak?

Bondo 2002an atera genuen eta Banda Bardoren disko eleganteena da, nire ustez. Lan honen bitartez lortu dut grabazio estudioan sartu eta lasai sentitzea, eta ez kartzelan banengo bezala.



A.B.

“Ez dugu estilo berezi bat eta edozein erritmo jo dezakegu, mazurca zein rock & rolla”

Azken lana, berriz, *Tre passi avanti*, joan den urtean atera genuen eta disko ezberdina da. Italian bizi izan genuen garaiz zoroen semea da: urduria, indartsua,

haserre samarra. Jaiaren nahia eta beharra sumatzen da diskoan.

Zuen musikan, elektrikoa eta akustikoa nahasten dira. Zein nahiago duzue?

Akustikoa maite dugu. Akustikoak intimitatea esan nahi du; handik sortzen da dena, bilatzen ari garen komunikazioa. Gure instrumentu gustukoena maite ditugu: zirkuko kaxa eta bidaie-tako kontrabaxua.

Doinu latindarrak ere badira bertan.

Erritmo latindarrak abestiei ematen dien suaren bila gabiltza.

OSPAKIZUNA

Txantxiku Ikastolak bere eguna ospatzeko egitaraua egin du

OIHANA ELORTZA

Apirilaren 22tik 28ra bitartean ospatuko du bere eguna Txantxiku Ikastolak. Aurten ere makina bat ekitaldi antolatu ditu ospakizuna egiteko: haurren parkea, hitzaldia, antzerkiak eta erakusketak egingo dituzte. Pirritx eta Porrotx pailazoak ere badatoz.

Urtero ospatzen du bere eguna Txantxiku Ikastolak. Baita aurten ere. Apirilaren 22tik 28ra bitartean antolatu dituzte ekitaldiak eta ikasleendako zein edozein herritarrendako dira.

Adibidez, apirilaren 22an eta 23an haur parkea izango dute txikienek Santa Anako ikastetxean eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek lanak ere ikusgai egongo dira ikastolako aretoan. Ikasleek antolatutako jaialdia ere egingo dute, baita antzerkia ere.

PIRITX ETA PORROTX

Apirilaren 23an, gainera, Pirritx eta Porrotx pailazoak etorriko dira eta bi saio eskainiko dituzte herriko haurren parkea, 16:30ean eta 18:30ean. Sarrerak ikastolako idazkaritzan daude salgai eta bost euro balio du bakoitzak. Kike Amonarriz ere badator, euskararen kalitateaz hitz egitera.



TXANTXIKU IKASTOLA

Egun 747 ikasle ditu Txantxiku Ikastolak, 0 eta 18 urte bitartekoak.

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

8.850 herritarrek izango dute bozkatzeko aukera

O.E.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak egingo dituzte domekan eta 8.850 oñatiarrek eman ahal izango dute botoa. 200 herritarrek posta bidez bozkatzeko eskaera egin dute herriko posta etxean.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 8.850 oñatiarrek eman ahal izango dute botoa, duela lau urte baino 128 gutxiagok; 8.978k izan zuten botatzeko eskubidea 2001eko hauteskundeetan.

Bestalde, herriko posta etxean 200 oñatiarren eskaerak jaso dituzte botoa postaz emateko.

16 HAUTESLEKU

Domekako hauteskundeetan 16 hauteskunde zentro egongo dira, aurrekoetan bezala.

Bost gunetan jarriko dituzte 16 hautesleku horiek: Txantxiku Ikastolan zazpi hautesleku jarriko dituzte; Elkar Hezik Santa Marinaran duen ikastetxean, hiru;

Errekalde Herri Eskolako Haur Hezkuntzako geletan, bi; beste bi Txiki Txokon eta beste horrenbeste Bidaurretako dorrean.

09:00ETATIK 20:00ETARA

Hauteslekuak goizeko 09:00etan zabalduko dituzte domekan eta iluntzeko 20:00ak arte egongo dira

zabalik. Mahaian egotea tokatu zaien ordu bete lehenago eman behar dute egokitutako hauteskunde zentroan.

Hautesleku bakoitzean hiru lagun egongo dira, mahaiko presidentea eta bi kide, baina pertsona bakoitzeko beste bi ordezkari ere zozketatzen dituzte.



50 IBILBIDE FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN



Jentilak, Elurzuloak,
Kontrabandisten bideak,
Pozalagua, Baltzola,
Aixerrotak...

Tokian tokiko ohitura, kultura,
istorio eta altxorak ezagutzeko
50 mendi buelta.

Apirilaren **24**tik aurrera

egunero ibilbide bat **DOAN BERRIAREKIN**

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

PENTEKOSTE jaiak



Salou 2005

- Egonaldia Maiatzak 13tik Maiatzak 17ra.
- Luxuko bi autobus.
- Irteerak 17,00etan eta 20,00etan.
- Gidari Laguntzailea.
- Asistenzia eta bidai aseguru.
- Ume bat doan eta bigarrenak deskontua.
- Hirugarren eta laugarren pertsonendako deskontua.

Oinarrizko prezioa pertsona bakoitzeko	AUTOBUS GABE		AUTOBUSAREKIN	
	€	Pta	€	Pta
Las Vegas	89,25	14.850	137,03	22.800
Eurosalou	89	14.808	136,78	22.759
Augustus	83,65	13.918	131,43	21.868
Playa Park	102,60	17.071	150,38	25.021
Europa Park	100,50	16.722	148,25	24.667
Olympus	107,35	17.862	155,13	25.811
Michelangelo	105	17.471	105	17.471



INFORMAZIOA eta ERRESERBA:
Domingo Irala, 5
Tno 943 76 26 76 eta 943 76 12 67
IDOIA eta KARMENTXU

EROSKI / viajes

merezi duzu

Nobedadea

SHINKYOKUSHINKAI KARATEA

NAGUSIAK/ UMEAK

AEROBIKA / STEPA

MUSKULAZIOA

SASOIAN EGOTEKOA

ARETOKO DANTZAK

SEVILLANAK

BOBY-PUMP

TAI-CHIA

MASAJEA

SAUNA

SOLARIUMA

KIROLA EGITEKO EZAUGARRIAK
(arropa, janaria)



SPINNING ESKOLAK

Harane Erreka 9 • Tel.: 943 76 72 91 • 20570 Bergara